

Xabierto eta Sabin, eskola liburutako ikasle eredugarri

Karme Perez Urraza

Euskal Herriko Unibertsitatea.
Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila.
toppeurk@vg.ehu.es

Abstract

Textbooks are the most common and ideological didactic tools that can be found in the classroom. The purpose of this article is to identify and expose the values, images, and ideas on certain societal conflicts or subjects that lie beneath the text or iconography used as teaching material, based on a line of research that has a long tradition in Europe and America, namely, the content analysis of textbooks. This time, the author begins its analysis comparing two textbooks, *Xabierto* and *Sabin euskalduna*, in order to explain how do they treat and portrait the two young boys who are the main characters of each book.

Laburpena

Testuliburua ikasgelatan erabiltzen den tresna didaktiko ohikoena da baita ideologikoa ere. Europan eta Amerikan tradizio nahikoa duen bere eduki-azterketa ikerketa lerroan oinarriturik ikasmaterial horren testuaren edo ikonografiaren atzean dauden baloreak, irudiak, gai edo arazo sozial batzuen inguruko ideiak detektatzea eta agerian uztea gura dugu. Oraingoan, *Xabierto* eta *Sabin euskalduna* testuliburuaren arteko konparaketatik abiatzen gara bi mutiko horiei liburu-protagonista diren neurrian ematen zaien trataera eta izaera nolakoa den azaldu nahi dugulako

Keywords: Textbook, student, content-analysis.

Hitz gakoak: Testuliburua, ikasle, eduki-azterketa.

1. Testuliburua ikergune

Ikasgela batean erabiltzen diren baliabide didaktikoetatik testuliburua da tradizionalena eta, horregatik, ikuspegi didaktiko, zein teoriko zein ideologikotik begiratuta, baliabide honek artikulu, liburu, ikerketa eta doktore-tesi bilduma dezente sortu du.

Testuliburuari buruzko ikerkuntzaren ikuspegi eta lerro nagusiak, testuliburuaren ikerketa-lerroa, batik bat, hirurogeigarren hamarkadan sortzen da eta, ikaragarriko bultzada ezagutuko du 1960-80ko epealdian zehar (Colás, 1989: 41-42). Berak testuliburuaren dagoen bibliografia eta ikerketak bildu ondoren, ondorioztatzen du baliabide honen inguruan honako oinarriko bost ikerketa-lerro nagusitu direla:

1. Eduki inplizituari buruzko ikerketa-multzoan aurki ditzakegu testuaren ezkutuko edukia aztertu dituztenak: baloreak, eduki moral eta zibikoa, sexuarekiko bazterketa, ideologia, etabar (Clemente, 1981, 1983).
2. Testuliburuaren ebaluaketari buruzkoak. Eskoletako irakasleak liburuaren modu egoki batez aukeratu dezan, multzo honetan kokatzen dira testuliburuaren erabilgarritasunari begira gauzatu diren ikerketak. Lerro honetan ugaritu diren ikerketaren guneek liburuaren irizpide pedagogikoak, zientifikoak eta psikologikoak

aztertu dituzte, batik bat (Rosales, 1983; Rodríguez, 1993; Bernad, 1974).

3. Hirugarren lerroak, berriz, aurrekoaren ikuspegi globalaren alderantzizkoan, liburuaren trataera analitikoagoa landu du bere ikergunean: irakurgarritasunaren maila, edukiaren garapena eta kreatibitate-maila. Multzo honen barruan sar daitezke, baita ere ikaskuntzaren maila teorikorako argigarri diren hainbat ikerketa enpiriko. Horietariko gehienek harreman estua agertzen dute psikologia kognitiboarekin, ikaskuntza-prozesuan aldagai jakin baten eragina aztertu baitute. Horren adibideak dira, galderak, eduki-egituraketa, laburpenak, irudiak eta antzeko aldagaiak kontuan hartzen dituzten ikerketak (Wixson, 1984; Guerrit, 1986; Glynn, 1985; Winn, 1982).
4. Liburuaren arlo formalek ere garrantzia handia izan dutela liburu-ikerkuntzaren tradizioan. Letraren tamaina, izenburuen letra-tipoak eta kokapena, edukien dentsitatea eta kokapen espaziala, gai berezituak izan dira ikerketa-mota hauetan (Hartley eta Trueman, 1985; Dean eta Kuhavy, 1981; Morrison 1988). Sailkapeneko azken enfoke honetako ikerketek, berriz, baliabide desberdinen arteko konparaketa dute helburu. Baliabide batek (bideoak, liburuak, telebistak...) beste batekiko (edo besteekiko) dituen onurak

zehatz-mehatz aztertu nahi izan dituzte ikerketa hauek. Lan hauen oinarrian dagoen tesia da, azken finean, baliabideak berak bere izaeragatik baldintza dezakeela helarazten edo prozesatzen duen mezuaren itxura edo izaera. Ildo honetatik buruturiko ikerketa batzuek gogoeta eta ekarpen teorikoak (Winn, 1982) zein enpirikoak (Salomon, 1984; Salomon & Leigt, 1984) sortu dituzte.

5. Guk, enfoke eta ikerketa-lerro hauen garrantzia ez dugu ukatzen, gutxiago dudan jartzen, jakin badakigulako didaktikaren aldetik ekarpen handiak izan direla, baina, guri, oraingoan, eta gure ikerketaren nolakotasuna kontuan izanik, modu berezian interesatzen zaiguna, ikasmaterialari buruz edukia azterketa ideologikoari ekin dion bosgarren ikerketa-lerroa da. European eta Amerikan tradizio nahikoa duen ikerketa-mota honen xedea da ikasmaterial horren testuaren edo ikonografiaren atzean dauden baloreak, irudiak, gai edo arazo sozial batzuen inguruko ideiak detektatzea eta agerian uztea. Beste modu batera esanda, ikerketa horiek aztertu dute, adibidez, nolakoak izan daitezkeen emakume eta gizonen errolak material horietan, talde sozial, kultural edota politikoen imaginariuma edo estereotipoa nola eraikitzen den, arrazakeria, ideologiak edo bestelako sinesmen erlijioso edo politikoak nolako izaeraz agertzen diren (Area, 1994). Horiek izan dira, batez ere eta gehien bat, ikerketek jorratu dituzten ildoak. Hala ere, ikuspegi honek, beste guztiek bezala, bere kritikak izan ditu. Gehienetan leporatu izan zaio ikerketa hauetan testua gehiegi mitifikatzen dela. Ildo honen barruan -eta gehienetan-, era bateko zein besteko testu edo irudiaren edukia buruzko azterketari ekin diote.

Esaldiak, enuntziatuak, adibideak -oro har, testu idatziak-, liburuak sortzen dituen komunikazio-moduak direla kontuan hartzen bada, hots, gauzak zer eta nolakoak dira esan eta azaltzeko adierazpenak direla onartzen badugu, ondorioz atera dezakegu testuaren eduki-azterketa nahitaezkoa dela beraietatik baliozko interferentziak ateratzeko.

Guk, horregatik, edukia buruzko kontzeptualizazioan bi dimentsio goraipatu nahi ditugu: bata, komunikazioaren esparru sinbolikoaren interpretazioa, eta bigarrena, inferentzia eta interpretazioak egiterakoan, komunikazioaren testuingurua kontuan hartu beharra (Perez 2004: 119). Horregatik, testuaren testuinguruari arreta berezia eskaini behar zaio ondoko bi ikuspuntuotatik: batetik, testuinguru linguistikoaren ikuspuntutik, zeinetan edozein elementu diskurtsoaren osotasunean hartzen duen hierarkiari begiratzen baitzaio; bestetik, egoeraren testuinguruari, zeren eta "testuaren testuinguruak izendatzen du egoeren multzoa, zeinetan enuntziatio aktoa garatzen den, hau da, bai inguru fisiko eta soziala, non akto hori txertatzen den, baita solaskideen identitatea -batak bestearengandik egiten duen ideia-

baita ere enuntziatio aktoaren aurretik izan diren gertaerak" (Thinés & Lempereur 1975: 183).

Artikulu honen mamia azken joera horretan kokatzen dugu, *Xabierto* eta *Sabin euskalduna* testuliburuaren arteko konparaketa egin nahi dugulako, hain zuzen ere, bi mutiko horiei, liburuaren protagonista diren neurrian ematen zaien trataera eta izaera nolakoak den azaldu nahi dugulako. Konparaketa horri heldu baino lehen, bi liburu horien sorreraz zertzelada historiko batzuk aipatu beharrean gaudela uste dugu.

2. Kokapen historikoa lehen euskal eskola liburuen inguruan.

XIX. mendearen bukaeran, Euskal Herriaren izaera (juridikoa, politikoa, ekonomikoa, demografikoa, kulturala) erabat aldatzen da. 1876an euskal foruak abolitzean sortzen den mugimendu abertzale eta euskaltzaleak betidaniko helduleku politiko eta kulturalak huts egiten duela ikusten du. Orduetik aurrera, euskal nortasuna, euskal ezaugarriak definitzen eta defendatzen ariko dira euskaltzaleak. Eraso horri aurre egiteko joera foruzalea eta autonomizalea areagotu egiten dira eta, Euskal Herriaren historia, kultura, hizkuntza berreskuratzeko behar intelektual eta politikoa sentitzen da. Honela, euskal izaera sustatzeari ekiten dio mugimendu berri honek. Ekimen horretan nabarmentzen den intelligentsiak eta, batez ere, Sabino Aranak eta bere proiektuak, euskaldunon historia berrinterpretatu egingo du baina honek proiektu politiko gisa landuko du Euskal Herria, eta nazionalismoaren bidez gainditu du neoforalismoa (Torrealdei 1997: 101).

Foruen ondorengo gizarte-mugimenduen protestak eta euskaltzaleen hizkuntzaren aldeko errebindikazioak direla eta, hezkuntzaren munduan auzo-eskolen esperientzia eta lehen Ikastolak ezagutuko ditugu. Sasoi horretan ematen dira Eusko Ikaskuntzaren kongresu desberdinetan hizkuntza eta irakaskuntzako arloei buruzko erabaki eta ekimenen emaitzak. Horra hor, Eusko Pizkundearen euskal nortasuna esatzeko asmo berriak (1931-36). Horregatik, Euskal Pizkundearen mugimenduaren inguruan eta horren bultzadaz, 1900-1936 epealdiko urteak oso emankorrak izan ziren euskal testugintzan.


Aipatu berri dugun egoera soziologiko horrek isla zuzena zuen euskal testugintzan. Eskolarako euskaraz idatziriko testugintzak 1920. urtetik aurrera ezagutu zuen lehen bultzakadarik nabarmena. Euskaraz idatziriko testuliburuaren premia lehendik antzemana bazen ere, premia larriaz agertu, 1921. urtean agertu zen. Izan ere Bizkaiko Aldundiaren eskuetan zeuden Auzo Eskoletan irakaskuntzaren zati bat euskaraz ematen zenez gero, lehen irakaskuntzarako arlo eta ikasgai guztiak euskaraz emateko testurik ez zegoen eta prestatzearen ekimenari lehentasuna eman zitzaion Bizkaiko Aldunditik. Bestetik, sortu berriak ziren Ikastolei oinarriko testuez hornitzeko helburuekin sekulako ahaleginak egin ziren Euskal Herri osoan zehar eta egindako sorkuntzari eskainitako ekimenari

esker, euskal testuliburugintzaren loraldiak pizkundearen fruiturik oparoenetarikoa ekarri zuen.

Horregatik, Euskal Pizkundeko R.M. Azkue eta Sabino Arana aitzindariengandik hasi eta beste askoren artean, guk geuk, Lopez de Mendizabal–Ixaka, Permin Iturriotz, Gabirel Jauregi edo Aita Zabala-Arana liburu-egileak, testuliburuak eta haur literatura landu zituztenak, goraipatuko genituzke irakorlaren mundu horretan. Ez da ahaztu behar Aita Zabala-Aranaren lanak -1920an hasi eta 1936ko gerran hil zen arte-, eskola liburu asko idatzi zituela, gehienak bera irakasle zen Donostiako Muñoa Fundazioko ikasleentzat (Calleja 1994: 93). Bereak dira *Edesti Deuna, ume ikaslariyentzat* (1921), *Eusko Lutelesti Txikia* (1922), *Daneurtiztia, Amabi atalxoatan*, (1922), *Zenbakiztiya* (1922), eta *Josutxu, umientzako Otoi-idaztiñua* (1931). Sasoi berean argitaratzen dira *Sabin Euskalduna* (Estornes Lasa, 1931) eta *Lutelestia* (P. Iturriotz, 1932), lehena, bigarren mailako irakurketa liburua, eta bigarrena, aldiz, lehen geografia liburua. Liburu mardulagoak dira, landuagoak, inprenta-teknika berriagoez eginak eta *Xabierto*-ren ildo ideologikotik edaten dutenak, orduko hezkuntza ofizialari uko eginez, berrikuntza pedagogiko eta ideologikoaren isla izan nahi dutenak.

3. Xabierto eta Sabin euskalduna liburuak

Aipatu dugun testugintzaren zertzelada horietatik abiatuz, Torrealdairerkin batera esaten dugu liburuxka eta eskuliburu gehien prestatu zituen Isaac Lopez de Mendizabal izan zela 1907tik aurrera: *Zenbakistia* (1913), *Umearen laguna* (1920), *Nekazaritza* (1929), *Martin Txilibitu* (1931) eta *Seaska-abestia* (1932) eta *Xabierto* (1925), arrakasta handiena izan zuena. Liburuko 3. orrian irakurri daitekeenez “umiei euskeraz irakurtzen erakusteko idaztia” prestatua zen eta honek 1923ko Euskalerraren Alderen saria irabazi zuen. Liburu honetan euskal nazionalismoaren sintesia agertzen da modu erraz, atsegin eta irudikapen biziak emana (Dávila Bálsera 1997: 616) erlijiosotasuna eta natura besarkatzen dira, irudietan eta apaindurietan euskal ohiturak eta Euskal Herriko testuingurua ardatz gisa hartzen direlarik.



1. irudia: *Xabierto* eskola liburuaren azala

Xabierto 1925ean egilearen beraren argitaletxeak plazaratu zuen tamaina txikiko argitalpen gisa -144 orriz eta honen marrazki erdiaz osatua- eta “60ko hamarkadara arte gehien berrargitaratu den eskola liburua, eta areago, esan genezake baita, ikastolan ikasi duen ikasle belaunaldi batzuen eskola liburu bakarra izan dela ere” (Calleja 1994:174). Hainbat alditan argitaratu eta beste hainbestean agortua bizkaieraz moldatutako bertsioan ere plazaratu izan zen 1959an, Aita Onaindiak moldatua.

Garaiko testugintzaren izaera kontuan izanik *Xabierto* ikasmaterial gisa oso aurreratua zela esan beharra dago. Liburuaren arlo formalean nabarmendu daiteke inprenta eta testugintza ezagutzen zituen egilearen kutsua. Ortografian erre eta ele tildatuak erabili ohi dira erre eta ele bikoitzaren orde. Testua, ikonografia eta tarte hutsak zainduak daude irakurlearen aspergarritasuna eta nekea ekiditeko batetik, eta bestetik, ikaslearen erakargarritasuna eta motibazioa lortzeko. Irudi asko daude, tamaina askotakoak eurak eta orrialdearen kokapenean egokiro jarriak ikaslearen adinaren arretari begira. Bestalde, oso irudi biziak dira (kuatrikromatikoak, gehienak) ikaslearengan testuaren eta ikonografiaren arteko lotura ondo soldatzeko eta, horrela, helarazten den edukia esanguratsuki barneratzen dela segurtatzeko.

Xabierto agorturik zegoela, 1931an Bernardo Estornesek *Sabin euskalduna* eskola liburua idatzi zuen. Guk, liburuaren jatorriaz hainbat datu jaso ditugu bere zuzendaritzapean argitaratzen den Auñamendi Entziklopediatik (1996: 556). Bertan azaltzen zaigunez, Agustin Zamalabek euskaratu arren Bernardok berak gainbegiratu zuen. Inprimaketa lana, berriz, Zarautzen burutu zen “Zelaia ta Lagunak” zuen Eusko Argitaraldian.



2. irudia: *Sabin euskalduna* eskola liburuaren azala

Eskola liburu hau, 128 orriz osatua dago eta “Santos”en marrazkiz hornitua. Hondo zuriaren gainean agertzen diren irudi berdeak, berriz, inprimategiko linotipista batek inprobisatuak dira eta kanpo azala “Txiki” ilustratzailearena da. Bernardo Estornesek sortu berri zuen “Beñat Idazkiak” argitaletxea liburu honekin hasi zen eta liburuak Euskal Herria osoan zehar izan zuen arrakasta itzela zen eta liburuak handik lasterrera agorturik zegoen. Oin-orrian agertzen dira euskara jatorrean nola esaten diren liburuan agertzen diren hainbat neologismo (ikastetxe, idazti, irakurri...) eta ortografian erre eta ele tildatuak erabili ohi dira erre eta ele bikoitzaren ordez, eta “i” bokala “y”aren ordez. Liburuak haurrentzako bigarren irakurketa liburu izateko burutu zen, liburuak 2. orrian agertzen den irudian txertaturik datorren testuak dakarrenez eta guk 3. irudian islatzen duguna.



3. irudia: *Sabin euskalduna* (2.orria)

Liburu bien azalak –ikus 1. eta 2. irudia– “Txiki”k marraztu zituen protagonista banaren marrazki

erakargarri, atsegin eta gozoak erabiliz. Barruko antolamenduari begiratzen badiogu nabarmena da *Xabierto*-k testuari %81a eskaintzen dion bitartean, ikonoari %16,28a ematen diola, tarte hutsak % 2,71an mantenduz. *Sabin euskalduna*-k, berriz, idatziz %73,05a duen bitartean ikonoz %25,41a dauka, tarte hutsari toki gutxiago eskainiz -1,54a-. Ikono-promedio orrikoa zenbatekoa den aztertuz gero baieza dezakegu ikonoen presentzia handia dela kasu bietan: 0,52 eta 0,74koa, hurrenez hurren. Bestalde, *Xabierto*-n ikono polikromatuak dira gehienak -%82a- eta *Sabin euskalduna*-n, ia denak kolore bikoak -%96a-.

Ikono erabilera horrek pentsarazten digu liburuak orriz orriko irudi-agertze horrek betetzen duen funtzio didaktikoaz, azken batean, testuan esaten denarekin hurbilketa lortu gura dela, bide zuzenetik, azkarragotik, biziagotik, atseginagotik ikaslearen motibazioa eta testuarekiko identifikazioa areagotuz. Hala ere, liburuaren diskurtsoa, batik bat, idatzizkoaren bidez eraikia da baina ikonografiaren laguntzaren bidez osatua.

Gure ustez, motibazioa eta liburuaren edukiarekiko identifikazioa areagotu egiten da protagonistaren batek ildo didaktikoa daramanean. Horregatik, *Xabierto* eta *Sabin euskalduna* testuliburuaren arteko konparaketa burutu nahi dugu, oraingoan, bi mutiko horiei liburuaren protagonista diren neurrian ematen zaien izaera aztertuz. Testuz adierazpen zehatzagoa aurkitzen dugu aipaturako alor horiekiko. Horregatik protagonistaren inguruko aipamenak zein bere munduari loturikoak idatzizkoari begiratu izatuko ditugu aldameneko ikonoaren esanahiaz uztartuz beharrezkoa bada.

3.1. Xabierto

Xabierto liburuan baserria da gauza askoren sorburua. Baserriaren mundutik sortzen dira nekazaritza, abelazkuntza, basogintza, soroak, familia eta senideak. Baserria da ingurune fisiko eta kulturala biltzen dituen gunean, baina *Xabierto*ari buruz egiten diren aipamenak ez daude zehazki inon lekuturik, familian eta ikastolan izan ezik.

Xabierto da liburuaren protagonista nagusia. Azalean bera agertzen da *Xabierto* liburuaren irakurle, zeinek bere barruan beste erretratu berdina etengabe errepikatzen duen. Azalean ere bere izena bi aldiz agertzen da eta barrualdean izen bera idatzita dator liburugileak bere *Xabierto* semeari liburuak eskaini egiten diola esaten duenean. Testuak dakarrenari begiratu baino lehen konstatatzen dugu izen horrekiko errepikapena. *Xabierto* sekulako protagonismoa hartzen du haur irakurleen aurrean, hor eta barruragoan.

Testuan zehar 13 episodiotan bera da protagonista, modu batera ala bestera, aipamen guzti horiek *Xabierto*ren oraingoari erreferentzia egiten diotelarik. Ehun bat esalditatik bera 28 aldiz aipatua da, horietan

testuaren gainontzekoa esaten duena zenbatu gabe. Bere inguruan beste pertsona batzuk aipatuak dira, baina askoz gutxiago. Aipatuak bere gurasoak dira. Batzuetan bikotea, beste batzuetan ama ala aita eurak bakarrik eta besteetan familia modura. Bere arreba Iziartxo sarri agertzen zaigu Xabiartxoren bizitzan. Lagunak ere garrantzitsuak dira, batez ere ikastolan, non berak ikasten duen. Bere lagunak artean Andoni eta Martin aipatzen dira –azken hau bere arreba Iziartxo beste-. Xabiartxoren gune intimo horretan Jainkoak eta irakasleak ere toki berezia dute. Horietariko batzuek kantitatez gutxiago agertu arren esanahi handiko tokia dute Xabiartxoren bizitzan eta bere nortasunaren eraikuntzan. Modu honetan, dagoeneko definiturik gelditu zaigu protagonistaren mundua: batetik, bere familiaren esparrua; bestetik, ikastola, non bera bertako ikasle dugun beste batzuekin batera. Xabiartxoren izaera eraikitzen da gizabanako horiekiko ezarriak dituen loturen arabera.

Xabiartxoren lehen deskribapena liburuko 6. orrian aurkitzen dugu, ikono eta guzti (ikus, 4. irudia). Ikonoaren aldamenean Xabiartxoren berri ematen zaigu ondorengo pasarteak dakarrenez:

“Emen ageri dan mutiltxo au Xabiartxo da.

-Egun on, amatxo. Egun on, aita.

-Egun on, Xabiartxo.

Jaikitzerakoan egun onak eman bear dira.

Aita eta ama asko maite ditu Xabiartxo'k.

Xabiartxo oso ona da. Bere afeba Iziartxo'k asko maite du.

Seme ona gurasoen poza izaten da.

Ume onak dira bañere alkafen artean asafatzen.

Jainkoak ez du nai iñori kalte egiterik.

Guztiok anayak gera ta guziok alkar maite izatea nai du Jainkoak”.



4. Irudia

Pasarte horretan Xabiartxoren jokaera morala nola egituratzen den ikus daiteke. Batetik, Jainkoaren esanari jaramonik egin behar diogu eta horren arabera jokatzu gero denok elkar maitez, adiskidetasunez eta pertsona ona izanez agertu behar dugu (izan ere). Bestetik, seme on batek -gurasoen poza da, esanekoa, ondo hezitua- bere gurasoak maite ditu eta errespetoz tratatzen ditu.

Liburuko aldameneko 7. orrian Iziartxo aurkezten zaigu, Xabiartxoren nortasunaz beste ezagugarri batzuk eskainiz. Iziartxoaren ikonoarekin batera –ikus 5. irudia– dator ondorengo testua:

“Emen afean daukazuten au Iziartxo da.

Bere anai Xabiartxo'k bezela, jeki ta bereala Jainkoari eskefak emateko *Aita gurea* eta *Agur Maria* esango ditu.

Oeratzen ere beti egiten du otoi.

Lo dagoenean zaindu dezala eskatzen dio Jainkoari.

Eta etxeko guztiak osasuna eman dezayela.

Iziartxo oso biotz onekoa da. Ixila, zintzoa ta garbia. Bere gurasoak asko maite dute. Bere amari etxea txukuntzen ere laguntzen dio.

Ez du beñere gezufik esaten.

Ez da beñere gezufik esan bear”.



5. Irudia

Deskribapen honetan ikusten da Xabiartxoren oititzeko ohitura –eta Iziartxorena ere– Jainkoak bere senide guztien osasuna gorde dezan egiten dion errukipenean datzala. Osasuna eta garbitasuna, biak, zaindu behar dira, baina bata zati handi batean Jainkoaren esku gelditzen den bitartean bestea gutariko bakoitzarengan. Garbitasunaren ideia berriro aipatzen da 8. orrian Xabiartxok egunero betetzen dituen errutinetaz berba egiten zaigunean: “Xabiartxo'k ikastolara joan baño lehenago arpegia eta eskuak urez ongi garbitzen ditu; baita ilea oraztu eta jantziari autsa kendu ere. Bazkaldu baño len beti eskuak eta bazkal-ondoan aboa urez garbitzen ditu. Ortz eta agiñak sendoak izan eta luzeroan irauteko aboa garbitzea dala onena esaten dio Amak. Garbitasuna osasuna da. Izan gaitezen garbiak”. Ikusten denez, garbitasuna eta osasuna higiene kontua da baita sozialki egoteko modu bat ere.

Xabiartxo deskribatu zaigun moduan Iziartxo -Ama Birjinari begira dagoelarik ez dugu bere aurpegia ikusten- nolakoa den jakin dezakegu: oso biotz onekoa, ixila, zintzoa ta garbia, gurasoengandik maitatua, amari etxekoa txukuntzen laguntzen diona, eta beti egia esaten duena. Iziartxoaren izaera hori gorai patua da liburuko 23. eta 39. orrietako “Iziartxo'k biotz ona du” eta “Ume efukitsua” pasarteetan, hurrenez hurren. Lehenego kasuan, “oñutsik dabilen ume gaxo bat”

ikusten duelako eta, bigarrenean, “gaizki jantzitako ume bat” ikusten duelako haur irakurleari ondorio hauek aipatzen zaizkie pasartean bukaeran: batean, “Al dan guzian on egin bear da”; bestean, “goze danari jaten emayozute”. Esan dezakegu horrelako gertaeraren bat aurkezten den bakoitzean egoera horri dagokion apologia (lege morala) luzatzen zaiola haur irakurleari.



6. Irudia

Antzeko prozedura erabili ohi da Xabiartxok parte hartzen duen honako hauetan: “Mutil zintzoa” (54. or.), “Ez da asafatu bear” (55. or.), “Txori gaxoa” eta “Mutil ona eta mutil gaiztoa” (59. or.). Pasarte horiek doktrina honen inguruan borobiltzen dira: batetik, “ez degu besteren gauzik beñere guretu bear”; bestetik, “ez da beñere gaitzik egin bear”, eta azkenik, “izan zaitezte Xabiartxo bezelakoak, eta ez Martin’en antezkoak”. Egoera dikotomiko latz horien aurrean protagonistak zuzen jokatzeko ba dakiela erakusten duenean berarekiko identifikazioa baikorra lortu gura da ikasleengan, Xabiartxoren balio moralen goraiapamena ikasle-eredu bilakatzeko.

Xabiartxoren bizitzaz ezugarri gehiago dakar liburuak. Horietariko askok ikastolaren inguruan dituen bizipenak islatzen dituzte, lagunei loturikoak zein jakintzari eta gogoei lotuak. Hona hemen liburuko 8. orritik dakargun pasarte esanguratsua:

“Xabiartxo’k ikastolara joan baño lehenago bere aita eta amari agur egiten die, eta bere afeba Iziartxo’rekin etxetik ateratzen da.

Bidean ez dira inñun gelditzen.

Ikastolara joan gabe bidean lagun gaiztoakin biltzen danak, ez du beñere gauz onik ikasiko.

Xabiartxo’k egun-onak ematen dizkio Irakasleari eta gero onak esandako guzia ongi entzuten du, Onela laister izango da Xabiartxo mutil guzietan geyen dakiana.

Ikastolako atean.

Ikastolako atean bere lagun bat aurkitzen du.

-Nora oa?

-Ikastolara.

-Goazemak alkafeekin zibetan jolastera.

-Ez; ikastolara joan nai diat. Joaten ez ba-gaituk ez daigu ezer ikasiko.

Xabiartxo’k ikasteko gogoia du.

Xabiartxo mutil on bat izango da”.


Ikastola da Xabiartxoren eskola. Gizabideak eskatzen duen eran (11. orr.) Xabiartxok gurasoak zein irakasleak errespetu osoz tratatzen ditu euren esanetara adi egoten delarik. Xabiartxok ikastolan aurkitzen du bere ikasteko gogoak asetzeko tokia. Bestalde, testuan esaten denez, ikasteak ona izatea badakar, ikasten ez duena ezin da izan ikasle ona, ezta gizaki ona ere.

Ikastolako beharrik gogorrena irakurtzen ikasten izan arren Xabiartxok ikasi du irakurtzen. Irakurtzeko zaletasuna 6. irudia erakusten du eta zer nolako liburuak irakurtzen dituen 10. orriko honoko pasarteak azaltzen digu: “Irakurtzea beña da. Xabiartxo’k ikasi du irakurtzen. Martin’ek alpeña dalako, ez du irakurtzen ikasi nai”. Bere lagunek ere irakurtzen ikasi dute eta “gauz politak irakurtzen zizutzen: *Manu Zorgin* ta *Baso-jaunaren* edestiak. Eta pozez aritzen ziran aek irakurtzen”. Eskolan eta lagunekin Xabiartxok irakurtzen duen poztasuna goraiapatua da 32. orriko “Alaitasuna” izeneko pasartean eta 7. irudiak islatzen duenez. Xabiartxo beti pozik agertzen da Martin ez bezala: “Xabiartxo beti pozik dago. Bere lagunakin jolasten da. Martin, beñiz, beti kopetilun dago. Bere lagunak bakañik uzten dute. Xabiartxo alaya da. Ume alayak, oso maiteak izaten dira”.



7. Irudia

Etxea da ikastolaren luzapena eta, alderantziz. Ikastolan ikasten du irakurtzen eta matematikaren oinarriko eragiketak eta etxean birpasatzen ditu bere aitarekin, liburuko 62. orrian azaltzen denez. Sasoi horretako ikastolan ohiko eskuko lapitzarriak erabiltzen zirela erakusten du, bestalde, 8. irudiak. Aipatzekoa da, aitarekin duen elkarrizketan aitari zor dion errespetua, elkarrizketaren erantzunetan aita esan beharrean “Bai, jauna” erantzuten baitio, ia beti. Amarekin, berriz, etxeko esparruan gordetzen ditu elkarrizketa gehienak, giro hurbilago eta afektiboago batean.



8. Irudia

Aipagarria da testu guzti hauen zehar pertsona ona izateari ematen zaion garrantzia, hainbeste non Xabiartxo eta Iziartxo ona izateagatik gurasoek Donostiako ondartzara eraman dituzten, liburuko 94. orriko “Ondartzan” izeneko irakurgaiak dakarrenez: “Umeak, onak direnean, beren gurasoak pozik eramaten dituzte onelako gauz edefak ikustera”. Gai hori aitzakia da, bestalde, gure herriaren geografiari buruzko kontzeptu batzuk (irla, uharte...) lantzeko zein garraio (afaun-ontzi, aize-ontzi, lufin-ontzi) desberdinen funtzionamendua azalpenak emoteko. 9. irudian islaturik datozenez:



9. Irudia

9. irudiak islatzen duen familia ikusirik, aitaren janzkeragatik, batik bat, antzeman daiteke Xabiartxoren familia ez dela baserritarra, kaletarra baizik, eta, Xabiartxo, liburugilearen semearen antzera, industrializatzen ari diren herri horietako ikastola batean ikaslea dela, kulturalki ez baina fisikoki baserri mundutik apur bat haratago bizi dena.

Xabiartxoren deskribapenarekin bukatzeko agertu nahi dugu Xabiartxo eta Martinen artean ematen den dikotomia morala, zeinaren bidez baten balioak goraiatzaren diren bitartean, bestearenak lur jota

gelditzen diren. Ondorengo 1. taulan adierazten ditugu testuan aurkitu ditugun haur bi horien arteko diferentziarik nabarmenak:

XABIER	MARTIN
Oso ona (ez da asafetu behar)	Gaiztoa
Langile, esanekoa	Alpeña
Ikasteko gogoa duena (mutil on bat izango da)	Denbora eta gauzak alpefik botatzen duena
Ondo eta gustora irakurtzen duena	Ez jakina, efukari
Alaia	Kopetiluna
Lagunekin jolasten dakiena	Lagunek bakañik uzten dutena
Zintzoa	Gezurria
Lagunak, pertsonak, senideak maite dituena	“Inõrengatik ajolik ez dio”

1. taula

Martinen negatibotasun edo eza horretatik elikaturik sarri eraikitzen da gure protagonista nagusiaren handitasuna. Martini gaizkileren ezaugarriak ezartzen zaizkion bakoitzean Xabiartxorekiko leialtasuna irabazten da euskal haur irakurleengan, Xabiartxo mutikoaren gizatasuna eredu imitagarriago bilakatu. Ondoriozta dezakegu, batetik, Xabiartxori emandako identitate pertsonal, moral eta soziala ikasle eredu bihurtzen dela haur askorentzat, eta bestetik, liburu osoan zehar datozen euskal balioekiko identifikazioa areagotu egitea dela Xabiartxo bera -edo *Xabiartxo* liburua- bitarte delako.

3.2. Sabin euskalduna

Sabin euskalduna testuliburuan, *Xabiartxo-n* gertatzen den moduan, protagonista mutiko bat dugu: *Sabin euskalduna*. Sabinekin txikitarik eskolan ikasitako gauzak idatzi egin zituen eta orain testuliburuaren atal edo ikasgai bihurtu dira, ikasle abertzaleek zer gogoratu behar duten ahantz ez dezaten. Premisa horretatik abiatzen dira, bada, *Sabin euskalduna* testuliburuaren izaera eta edukia.

Sabin euskalduna ikasle imitagarri proposatzen da haur irakurleentzat, eta bost episodiotan zehar agertzen diren hitzen eta irudien bidez Sabin nolakoa den nabarmendu daiteke. Bost episodio horiek –Sabin euskalduna, Ikastetxean, Bere aitarekin, Lau Idazkiak eta Itzaufea– osatzen dute Sabin euskaldunaren deskribapenaren lehen kapitulua eta horiek sarrera ematen diote liburuaren hurrengo bost kapituluei, hots, Euskadi’ko Lutelestia, Euskadiko’ko Edestia, Jasokun Bereziak, Ipui ta Olerkiak eta Gizadia izeneko kapituluei.



10. irudia

Liburuaren protagonista, Sabin, lehenik eta behin liburuaren azaleko izenburuaz eta “Txiki” ilustratzailearen irudi bikain batez aurkezten zaigu. Bigarrenez, 3. orrian Sabin ikaslea irakurtzen ari delarik, eta, azkenik, 5. orritik hasita liburuko lehen kapituluko bederatzi orrietan zehar, non irudiz zein testuz Sabin nolakoa den zehatz-mehatz ezagutzera ematen zaigun. Liburu osoan zehar, Sabini kapitulu honetan soilik ematen zaio lekua, baina txikitasun horretan handitasunez agertzen dena. Zati horren testua 55 esaldiz osatua dago, eta horietako 17tan Sabin agertzen da modu batera ala bestera aipatua. Testuaren %31a Sabini eskaintzen zaio, orri batzuetan ikonoz ere lagunduta. Ikus dezagun, zehatzago!

“Sabin euskalduna” izenburua duen lehen testuan (5. eta 6. orrietan) liburuaren protagonistari aurkezpena egiten zaio, haur hori zertan aritzen den azaltzeko ikono eta guzti. Ikus 11. irudia.



11. irudia

Sabinen egunerokoaren deskribapena egin nahi delako, testuak dakarrena oraingoan kokatzen da, Sabin etorkizunean nola izan nahi duen azaltzen duena salbuespen. Sabini idatziz ematen zaion trataera 2. taulan aditzera ematen dugu sintesi modura:


ORAIN	GEROAN
Sabin euskalduna da	
mutiltxo on bat da	
bere gurasoak maite dituena	
7etan jaikitzen dena ikastolara joateko	
jaikitzerakoan otoitz egiten duena (Aita Gurea eta Agur Miren bat)	
Garbitu eta idaztiak hartzen dituena	
oso abertzalea dena; horregatik gurasoak gehiago maite dutena	
lagunekin euskera garbiaz itzegiten duena	
Lutelestia. Edestia eta legeak ikasteko gogoak dituena	
	gizon langile eta onuragarria izan nahi duena
aisialdian eusko-ipui eta olerkiak ikasten dituena	
bere gurasoen poza dena	

2. Taula

Sabin protagonistari erantzen zaizkion ezaugarrien agerpen zehatz horren bidez ikaslearen aurrean argi gelditzen da zein den Sabinen eredu imitagarria eta zergatik. Lehenik eta behin, Sabin euskalduna da, behin eta berriro barneratu zaigunez. Euskalduntasun horrek biltzen ditu bere baitan Sabinengan kontzentratu diren kualitateak, denak onak, bestalde. Sabinekin otoitz egiten du, gizabidetasunaz jokatzeko du, euskara garbia erabiltzen du kideekin eta ohitura herrikoia eta aberkoiak gogokoak ditu. Abertzaletasun hori dela eta, maitatua eta bere gurasoen poza da. Sentimendu horrek gidatzen du bere haurtzarora. Aberriak hala eskatzen diolako gizon langile eta onuragarria izatea lortu nahi luke.

Deskribapen horri ematen zaion garrantzia ikusirik, gizatasunari loturiko adierazpenekin batera jakintzari loturiko beste batzuk agertzen zaizkigu, hala nola, Lutelestia, Edestia eta legeak ikasteko gogoarena eta eusko ipuin eta olerkiak ikastearena. Horregatik, mutiko abertzalea delako bere gurasoek gehiago maite dute. Modu honetan, liburuko lehen kapituluaren gainontzeko beste lau testu zatietan Sabinen esparru hurbilak definiturik gelditzen dira. Esparru horiek dira, batetik, ikastetxearena –testuan zehar %25,5a okupatzen duena– eta, bestetik, bere aitarekin gordetzen duen harremanarena –testuan zehar %11a okupatzen duena–. Ikus dezagun!

“Ikastetxean” izenburua duen testu zatian (7. eta 8. orrietan) Sabin euskalduna, orain ez, baizik txikitako urtetan -14 urte bete zituen arte- eskolan zertan aritzen zen azaltzen zaigu, testuari lagunduta ikastetxearen irudia ere agertzen delarik 12. irudian ikus daitekeenez.



12. irudia


Sabinen orduko eskola zeregina hobeto uler dezagun, eta haur irakurlearen identifikazioa galdu ez dadin, zeregin horiek testuliburuak idatziz aipatzen dira. Horrela, Sabinekin egiten zuenari sekulako protagonismoa ematen zaio ikastetxearen inguruan eraikitzen den diskurtso honen zehar. Ulertuko dugu, ba da, kasu honetan -lehen ez bezala-, testuan deskribatzen den guztia iraganean kokatu behar izan duela liburugileak. Bestalde, uste dugunez, esaldi faktikoen erabilerak behartzen du haur irakurlea mezu hori mezu bakartzat hartzera. Guk, ondorengo, 3. taulan sintetizatzen ditugu *Sabin*-etik jasotzen ditugun eskolaren inguruko esaldi garrantzitsu horiek:

IKASTETXEAN
Irakasleak erakusten zuena Sabinekin berehala ikasten zuen. Lehena zen.
Oso mentsu zen. Azkar ikasten zuen.
Iñaki, Joseba eta Beñat: Bere lagunak onenak ziren.
Bera eta bere lagunak oso ikasle onak. Irakasleak idazkitxo polit bana eman zien.
Idazkiek sorgin, abere eta pizti-ipui eder asko zituen.
Beste ipui askoren artean Tartaroena zegoen.
Ipuiak etxean irakurtzen zituzten. Ikastetxean, ikasgaiak bakarrik ikasten zituzten.
Sabin 14 urte zituela ikastetxetik atera zen. Bitarte horretan, irakasleak erakusten ziona idazten zuen. Horrela hobeto ikasten zuen, eta, gizon onurakor bat egin zuen.

3. Taula

Aipatu berri dugun ikastetxearen deskribapen honek sarrera ematen dio Sabinekin eskolan egiten zuenari, 11. eta 12. orrietan agertzen den “Lau Idazkiak” izeneko testu zatiaren bitartez. Batetik, Sabin oso ikasle ona zen, berehala irakurtzen eta idazten zuena, eta, bestetik, berak gogoko ikasgai horiek berridazten zituen berak ikasi zituen moduan irakurle berriek irakurtzeko eta ikasteko aukera izan zezaten, orrialde horietatik bertatik hartutako honako pasarteak dakarrenez: “Sabin

gizontxo bat egin da. Berak nai luke, berak ikasten zuen bezela, umeak ere ikastea. Eta ontarako emen argitaratzen ditu, ikastetxean artutako idatzi-osafez egin zituen lau ingufaztiak. Sabin bezalakoak izan bear dute ume eusko´tar guztiak ¡Zein ona eta azkafra zan Sabin!”. Klasean hartutako apunteen bidez osatutako lau koadernotxo horiek testuliburuan goraiemena dute, testuz zein marrazkiz ematen zaion garrantzia ikusirik. Koadernotxoak eurak bakarrik marrazturik agertzen dira testuaren hasieran, objektu baliotsu balira bezala, 13. irudian ikus daitekeenez.



13. irudia

Sabinekin idatzitako lau ingurazti horiek osatzen dute, bestalde, haur euskotar batek jaso behar duen bere herriaren ezagutza-multzoa. Inguraztien izenburuek – Eusko-Lutelestia, Eusko-Edestia, Eusko Ipui eta Olerkiak eta Gizadia– birsarturik daude testuliburuan bertan, garatuko diren hurrengo kapitulu nagusiak osatzen dutelarik. Ume euskotarren balio-multzoa bergogoratu egiten zaie haurrei berriro, 13. orriko “Itzaurea” izeneko testu zatian, non, Sabinekin berak sinatuta, ume irakurleei zuzentzen dien eskutitza agertzen zaigun. Gure ustez estrategia didaktiko hau erabiliz, haurren enpatia afektikoa eta inplikazio pertsonal ideologikoa bermatu nahi dira Sabin protagonistarekiko, eta, honen bidez, Sabinekin ordezkatzeko duen kolektibitatearen balio-ikuskerara sinbolikoarekiko. Eskutitzaren mezu ideologikoak ez du galtzerik, ondorengo pasarteak begi bistan uzten duenez:

“Ume maiteak:

Ementxen idatziak daude ikastetxean ikasi nituen gauzak.

Zenbakitia, Eliztia eta beste gauza on asko ere, ikasi nituen.

Euskotar ume guztiok gogoz irakurtzea nai nuke, Jaungoikoa´ren urfen geiago maite nituen gauzak astiro ikusi ditzazuten.

SABIN”

Eskutitzak aditzera ematen duenez euskotarren herri horrek duen altxor preziatua (Jainkoaren hurren) da, hain zuzen, ideologikoki ikastetxeak garatu behar duena eta, belaunaldiz belaunaldi transmititu beharko dena aberriaren bizi iraupena bermatzeko. Sabinekin bere herria eskolan ezagutzaz maitatu zuen moduan bide bera jorratzeko proposatzen die ume maitetxo horiei.

Ikastetxeari transmisio lan horretan ematen dion garrantzia sekulakoa da. Horretan bereizketa handia egiten du, familiaren eta ikastetxearen eginkizunetaz. Ikastetxeari dagokio ikasgaiak irakastea eta etxekoi, berriz, ikastetxean ematen denaz jarrera baikorra agertzea, bertan egiten dena legitimatuz. Sabinekin ikastetxean ikasten denaz arreta eta ardura jartzea da gurasoen lana eta, horregatik txalotzen dute (aitaren harrotasuna) eta poza (amaren musua eta besarkada) adierazten diote Sabini kementsu aritzen delako ikastetxean zein aisialdian euskal ipuinak irakurtzen dituenean. Joera hori nabarmen ikus daiteke 9. orriko "Bere aitarekin" goiburua duen testuan 14. irudiko marrazkia lagunduta datorrena.



14. irudia

Dena den, Sabinen ikastetxeaz eta irakaskuntzaz ematen den irudiak orduko eskola autoritarioaren antza ematen du. 12. irudian islatzen den ikasgelari begiratzea baino ez zaio egin behar. Sabin eta bere lagunak agertzen direla uste dugu, eta pupitre horien eraketa, irakaslearen posizioak eta ikasleekiko gordetzen den distantzia esanguratsuak dira praktika pedagogikoak zeintzuk diren aztertzerakoan. Autoritatea eta ordena da nagusi ikasgelan eta maisuaren mahaian. Bestalde, 6. orritik hartu dugu 15. irudia nahiko adierazgarria da Sabinen haurtzaroan erabiltzen zen zigorra ezagutzeko.



15. irudia

Xabierto ikasle den ikastola ereduarekin konparatuz gero, Sabinen ikastetxea erabat desberdina da eta, aditzera ematen denez, irakasteko erak eta

irakaskuntzaren helburua ere desberdina, geroago azalduko dugunez.

4. Gogoeta batzuk amaiera gisa

Liburu bietan edukia ikaslearen aurrean aurkezterakoan liburugileek joera pedagogikoa, hots, kulturala hautatzen dute (Goodson 2000: 199). Joera utilitarista (ikaslearen ogibideari zuzendutakoa) edota akademikoa (zientifikoa) albo batera utziz, irakurlearen testuingurune ezagunarekin konektatu nahi dute egile biek. Erabilgarritasun horrek eraginda, *Xabierto*-ren kasuan, batez ere, hizkera gozoz eta samurraz abiatzen da ikaslearen ingurune hurbiletik: bere etxetik, bere familiarik, bere sentimenduetatik, bere kulturatik, bere herritik... *Sabin euskalduna*-n, berriz, gure herriaren epikotasunetik abiatzen da kultur altxor hori, batez ere. Kasu bietan mundu horrekiko gidari didaktikoaren antzera ikasle-protagonista agertzen da, baina bietan umetasun estereotipatua (eraikia, sortua) erabiliz. Modu horretan, ikaslearen adinarekiko identifikazioa lortuko da, hain zuzen, eduki gehiena pertsonaia baten inguruan eratuz: "ume euskaldun-fededun"aren eredu zen, bere herria, hizkuntza, erlijioa eta ohiturak maite zituen [...]. Ideologia nazionalistak bultzatutako eredu zen umea" (Calleja 1994: 93).

Aipatutako mikrokosmos hori erabat islatua dago testu zein ikonografia osoan zehar. Irudi gehienek, adibidez, Euskal Herriko errealitate soziokulturala islatu gura dute. *Xabierto* liburuan, adibidez, marrazkien bidez islatzen dena honako lehenetsunez agertzen da testuan birsartuta: beherako ordenuan gizonezkoa lehenengoa eta, ostekoak paisaia, fauna, pertsona heldua zein haurra, baserria, klima, nekazaritza-sektorea eta lanbideak, besteak beste. Liburuko marrazkien % 41,33ak, bestalde, euskal herri soziokulturalaren marka zehatza agertzen du. *Sabin euskalduna*-n kasuan, egon ba daude diferentzia batzuk. Horrelako lehenetsunak markatzen dira ikonoen bidez: gizonezkoa, heldua, paisaia, eszena, fauna, baserria, Erdi Aroa, rola, pertsonaia, andrazkoa. Liburuko marrazkien % 75ak euskal herri soziokulturalaren marka zehatza agertzen du, eta *Xabierto*-rekin alderatuz gero, portzentaje nabarmen altuagoa dela bistakoa da. Horregatik, marrazki horiek testuan uztarturik agertzen direla liburu bakoitzaren nondik norakoa hobeto ulertzen dugu, ondoren azalduko dugunez.

Liburu bietan ikasle protagonista euskal kulturaren balioetan sustraituta dago, baina ez modu berean. *Xabierto*-n, jakintza eta zintzotasuna uztartzen dituen pertsona ona izatearen gainean eraikitzen da haurrak sozializatzeko eredu; *Sabin euskalduna*-n, berriz, euskotar onuragarri, langile eta abertzale izatean oinarritua dago haur euskalduna sozializatzeko modua. Lehenengoan, protagonistaren enpatian eta balio moraletan kokatzen dute identifikazioa, bigarrenan, protagonistak haurtzaroan bizi izandako kulturaren epikotasunean eta aberria eraikitzeke sentimenduan. Batean, euskotar balioetan oinarrituriko eredu hori

imitagarri jartzen da, moralki egokitzat eta, arrazoi beragatik, eredu horrekiko leialtasunak emango dio pertsonari bere izaera morala, euskotar gisa, noski. Bestean, berriz, Sabinekin idatzitako idazkien bitartez belaunaldi berriak abertzaletasunaren balioetan sozializatu eta heztea lortu gura da, erreproduzioaren erreproduzioa bermatuz ikastetxeko ikasmateriala (liburua) dela medio.

Horregatik, batean, etxea, familia eta ikastola (euskara hutsean irakasten duen eskola) gizabidetasuna garatzeko guneak dira, elkarren artean mugarik adierazten ez dutenak; bestean, ikastetxeari dagokio, batez ere, belaunaldi berrien gizarteratze metodikoa burutzea, eskola-transmisioa durkheimar zentsuan hertsiki ulertua, gure ustez. Horregatik, lehen ereduak protagonistarekiko identifikazio indibidualago eskatzen duen bitartean, bigarrenak identitate kolektiboaren identifikazioa (abertzaletasuna) eskatzen du, nahita ez.

Amaitzeko, eta orain arte esandako guztia laburbildu nahian, kasu bietan oinarrian dagoena da orduko klase ertaineko ikaslearen sozializazioa bermatzea liburuaren erabilera -ikastolan zein ikastetxean- nagusi zen nazionalismo jeltzalearen ideologiaren arabera, hots, "Jaungoikoa eta Lege zaharra" lemapean.

5. Aipamenak

- Area, M. (1994). "Los medios y los materiales impresos en el curriculum", in: Sancho, J. M.: (Coord): *Para una tecnología educativa*. Barcelona: Horsori, 85-113.
- Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* (1974) Vol. XLI: *Reyes-Saca* (1996). Donostia: Editorial Auñamendi. Estornés Lasa Hnos.
- Bilbao Bilbao, Begoña; Ezkurdia Arteaga, Gurutze; Perez Urraza, Karmele (2004). *Euskal Curriculum ala Euskal Dimentsioa Curriculumean?* Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Calleja, S. (1994). *Haur literatura euskaraz. Lehenengo irakurgaietatik 1986ra arte*. Bilbo: Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa.
- Colás, P. (1989). "El libro de texto y las ilustraciones: enfoques y perspectivas en la investigación educativa", *Enseñanza*, 7, Anuario Interuniversitario de Didáctica. Salamanca: Ediciones de la Universidad de Salamanca, 41-49.
- Dávila Balsera, P. (1997). "Los libros escolares en euskera", in: Escolano, A.. (Dir.). *Historia ilustrada del libro escolar en España. Del Antiguo régimen a la Segunda República*, Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez. 599-620.
- Goodson, I. (2000). *El cambio en el curriculum*. Barcelona: Octaedro.
- Perez Urraza, Karmele (2003). *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Perez Urraza, Karmele (2003). "Lana eta garapen teknologikoa Xabierto eskola-liburuan", *Euskalingua*, 2, 162-170.
- Perez Urraza, Karmele (2004). *Curriculum eta testuliburu Euskal Herrian*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Thinés, G.; Lempereur, A. (1975). *Diccionario General de Ciencias Humanas*. Madrid: Cátedra, S.A.
- Torrealdai, J. M. (1997). *Euskal Kultura gaur*. Nafarra: Jakin.